


Apirilaren 29a, Dantzaren nazioarteko eguna

Dantza edo balleta amateur mailan praktikatzen duten gazteen ehunekoak gora egin du pixka bat azken urteotan, eta askoz handiagoa da nesken artean mutilen artean baino


Dantzaren Nazioarteko Eguna dela-eta, *Euskadiko gazteak 2012* azterlaneko datu batzuk aurreratuko ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#), dantza edo balletaren praktikari buruzkoak, hain zuzen ere. EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1.500 laguneko laginari martxoan egindako inkesta batean oinarritzen da azterlana.

Inkestako datuen arabera, gazteen %8,6k diote azken urtean dantza edo balleta *amateur* mailan praktikatu dutela. Ehuneko horrek EAEko biztanleria osoarena bikoiztu du (%4,3, **Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirolen Ministerioak**, [2010-2011ko Kultura-ohiturei eta praktikei buruzko inkestan argitaratutako datuen arabera](#)).



Emakume gazteen artean (%14) ohikoagoa da dantza edo balleta praktikatzea, gizon gazteen artean baino (%3,5). Era berean, ohikoagoa da 20 urtetik beherako gazteen artean (%14), adin horretatik gorakoen artean baino.

Dantza edo balleta *amateur* mailan praktikatzen dutenen ehuneko hori pixka bat altuagoa da duela bost urte kolektibo berarengan antzemandakoa baino (%6,9, [Kulturaren Euskal Behatokiak](#) berariazko eskaera bati erantzunez emandako datuen arabera. Datu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistiketatik (2007-2008) atera ditu Kulturaren Euskal Behatokiak).



Bilakaera aztertuz gero, igoera orokorra izan dela ikus daiteke, bai gizon gazteen artean, baita emakume gazteen artean ere.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

